


UDAL HAUTESKUNDEAK
2019

BERROSATZEAR DAGO ESKUALDEKO MAPA POLITIKOA



Analisia

Apirilaren 28an izan ziren Kongresu eta Senatuko hauteskundeak zenbait alderdiren mesederako. Hala ere, udal hauteskundeetan aldagai gehiago sartuko dira jokoan, eta nekez errepikatuko dira bozka kopuruak.

Udal hauteskundeetan ez dira Kongresuko emaitzak errepikatuko



Maiatzaren 26an izango dira hurrengo hauteskundeak. Aiaraldea.eus

Testua
Aitor Aspuru Saez

Kongresu eta Senatuko hauteskundeak duela aste gutxi izan ziren eta emaitza esanguratsuak utzi zituzten alderdiei dagokienez. Hala ere, oso zaila izango da bozka kopuru berak ematea maiatzaren 26ko hitzorduan.

Hasteko, aintzat hartu behar da muturreko eskuinaren politikak jende ugari mobilizatu zutela. 2015ean udal hauteskundeetan parte hartze maila %67an kokatu zen, eta apirilaren amaieran batezbestekoak %70a gainditu zuen nabarmenki. Esaterako, Amurrio %76,5era heldu zen.

Horrek bereziki eragingo die bozka gehien lortu zuten alderdiei, EAJ, EH Bildu eta PSE-EEri, nagusiki, ohikoan boto ematera joaten ez den jendearen babesa eskuratu baitzuten. Horrez gain, udal hauteskundeetan bestelako aukerak hautatzen dituztenetako batzuk ere alderdi horiek bozkatu zuten.

Adibidez, PSE-EEk Laudion 2.223 boza izan zituen apirilean, eta 2015ean 1.102 izan ziren.

Zentzu horretan, kontuan hartu behar da maiatzeko hauteskundeetan talde independente ugari aurkeztuko direla berriro: Aiara Batuz, Amurrio Guk Bai, Omnia, Orain

D'Hont legeak talde bozkatuenak saritzen ditu. Ondorioz, talde txikiek zinegotziak lortzeko zailtasun gehiago izango dituzte zenbait lekutan



Amurrio, Adie, Okondo Aurrera... eta hainbat jenderen babesa dutela udalerrietan, euren zinegotzi kopuruak erakusten duen moduan.

Gainera, talde berrien agerpena jaso da; Laudion Elkarrekin Podemos eta Vox, eta Amurrioan Vox. Horrek gehiago sakabanatuko ditu botoak, D'Hont legeak talde bozkatuenak saritzen baititu. Ondorioz, talde txikiek zinegotziak lortzeko zailtasun gehiago izango dituzte zenbait lekutan, adibidez, PPK Laudion edota Amurrioan emaitzen arabera. Bestalde, ordezkaritza lortzeko lehia udalbatzan alderdi horien artean gogortuko da.

Bukatzeko, ez da ahaztu behar Kongresuko eta udal hauteskundearen arteko alde nagusiak: hurbiltasuna eta tokikotasuna. Berez, parlamentuan politika ezberdinak egiteko aukera eta beharra dago. Eskuina eta ezkerrak jardura kontrakoak proposatzen dituzte argi eta garbi. Udalerrietan, ordea, hainbat esparrutan joera politikoa nabaritzen bada ere, inbertsioak eta proiektuak gauzatzeko tartea oso mugatua da, eta aldagai gehiago hartzen dituzte kontuan bozkatzaileek: hautagaia, aurreko 4 urteetan egindako lana, zuzenean eragiten dizkieten udal arazoak...

Hala ere, herriak izango du azken hitza.

AIARALDEA GUZTIRA 2015



2011-2015 // EMAITZEN ERKAKETA

ALDERDIA	2015			2011			ALDAKETA		
	BOTOAK	ZINEG.		BOTOAK	ZINEG.		BOTOAK	ZINEG.	
EAJ-PNV	7436	32.09	36	7580	32.3	37	-144	+%0.79	-1 ▲
EH BILDU	7266	32.34	36	8185	34.9	39	-919	-%2.55	-3 ▼
OMNIA	1989	8.85	4	898	3.83	1	+1091	+%5.03	+3 ▲
PSE-EE	1699	7.56	3	1974	8.41	3	-275	-%0.85 (=)	▼
PP	1185	5.27	3	2254	9.61	8	-1069	-%4.33	-5 ▼
ADIE	778	3.46	6	668	2.85	5	+110	+%0.62	+1 ▲
ORAIN AM.	738	3.28	2	(-)	(-)	(-)	738	+%3.28	2
OKON. AUR.	284	1.26	4	(-)	(-)	(-)	284	+%1.26	4
AM. GUK BAI	274	1.22	1	(-)	(-)	(-)	274	+%1.22	1
AIARA BATUZ	245	1.09	2	314	1.34	2	-69	-%0.25 (=)	▼
URE-EBB	145	0.65	0	152	0.65	0	-7	-%0	(=)

ZENBAKETA: % 100 // (% Boto baliadunen gaineko ehunekoa)

ZENBAKETA: % 100 // (% Boto baliodunen gaineko ehunekoa)

Arrankudiaga-Zollo

Alkategai berriak arituko dira lehian



2015eko udalbatzaren osaketaren irudia. Aiaraldea.eus

Testua
Txabi Alvarado Bañares

Azken bi lege-agintaldietan EH Bildu egon da Arrankudiaga-Zolloko Udal Gobernuan. 2015eko udal hauteskundeetan 342 boto jaso zituen koalizio abertzaleak (%53.69) eta lau zinegotzi lortu zituen horrela. EAJk, aldiz, 267 pertsonen babesak jaso zuen (botoen %41.92), hiru zinegotzi lortuta. PSE-EE eta PP ere aurkeztu zi-

ren hauteskundeetara, baina oso emaitza txikia lortu zuten: seina boto (%2 baino gutxiago).
Gauzak hala, Itziar Duoandikoetxea izan da udalerriko alkatea azken zortzi urteetan, baina aurtengo udal hauteskundeetan ez da alkategaia izango, Txutxi Ariznabarretari pasatu baitio lekukoa. EAJn ere belaunaldi aldatuta egon da: Urtzi Vergarak Josu Beaskoetxeari pasatu dio jeltzaileen zerrendaburu izateko ardura.

ARRANKUDIAGA ZOLLO 2015

ZINEGOTZIAK GUZTIRA		
BOTOAK	%	ZINEG.
EH BILDU	342	53.69
EAJ-PNV	267	41.92
PSE-EE	6	0.94
PP	6	0.94
ZURIAK	15	BOTO
BALIOGABEAK	5	BOTO
ERROLDA	782	
ABSTENTZIOA	%17.52	

UDALBATZAREN EGUNGO OSAERA

1. I. DUOANDIKOETXEA (EH BILDU)
2. GARAZI ABRISKETA (EH BILDU)
3. AITOR ALCAIDE (EH BILDU)
4. NEREA ZARATE (EH BILDU)
5. URTZI VERGARA (EAJ)
6. ANE MIREN ESPARZA (EAJ)
7. JOSU BEASKOETXEA (EAJ)

HAUTAGAI NAGUSIEN HITZAK

TXUTXI ARIZNABARRETA
EH Bildu

Gure programako erronkak aurrrera eramateko prestaturik eta ilusioz beterik gaude. Taldea sendoa dugu, esperientzia luzea duten pertsonak eta gazteen kementa eta haize freskoa. Gardentasuna, hurbiltasuna, kudeaketa gaitasuna eta konpromisoa eskaintzen ditugu. Proiektu oso garrantzitsuak ditugu: azpiegiturretan (ura, saneamenduak, Oxinburu...); etxebizitza arloan, politika sozialean, euskara eta kulturaren eta udal zerbitzu aurreratu eta eraginkorretan.

Elkarbizitza, elkartasuna, berdintasuna eta justizia soziala oinarri hartuta, herri bizi eta kohe-sionatua eraikitzea goaz. Gakoa parte-hartzea da, guztiontzako herria guztion artean eraiki behar dugulako.

JOSU BEASKOETXEA
EAJ-PNV

Auzokide agurgarri hori: Arrankudiaga-Zolloren alde lan egiteko kapazitatea duen programa eta hautagaitza osatu ditugu. Hainbat adin eta auzoetako pertsonen osatutako hautagaitza da gurea, herria eta bere jendea goitik behera ezagutzen duena. Ilusioa eta gertutasuna transmititzen duena eta baita ere herritarren ongizateaz arduratzen dena. Hurrengo lau urteetan, gai askori eman behar diegu konponbidea: etxebizitzari, garbiketaren arazoari, mantenuari eta zortzi urte haue-tan soluzioa eman ez zaien beste gai askori ere. Herria berriro ere martxan jartzeko ordua heldu da. Batera lortu dezakegulako, lana+ilusioarekin gure herriak eta herritarrek merezi dituzten emaitzak lortuko ditugu.

Zurekin

BIZKAIA

gara

Arakaldo

Boto gutxi azken emaitza aldatu dezakete



Arakaldoko zinegotziak, 2015eko udalbatzaren osaketaren ostean. Aiaraldea.eus

Testua
Txabi Alvarado Bañares

Aiaraldeko udalerrri txikiena da Arakaldo, eta hori asko nabaritzen da hauteskundeetan, oso bozka gutxi egon ohi direlako lehen alderdiaren eta bigarrenaren artean.

2015eko udal hauteskundeetan 115 herritarrek izan zuten bozkatzeko aukera, eta EH Bildu atera zen garaile, 43 herri-

tarren babesa jasota. Lau zinegotzi lortu zituen horrela koalizioak.

Eusko Alderdi Jeltzaleak, bere aldetik, 36 boto jaso zituen, zinegotzi bakarra eskuratuta. 2011ko udal hauteskundeetan ere EH Bildu izan zen talderik bozkatuena, baina EAJrekiko tartea oso txikia zenez zozketa bidez erabaki zen nork gobernatuko zuen, eta jeltzaleei egokitu zitzaion.

HAUTAGAIK



JABI ASURMENDI
EH BILDU

Lau urte pasatu dira herria udal-letxera eraman genuenetik. Ikusi dugu nahi dugun Arakaldo denon artean eraikitzea posiblea dela, kudeaketa eraginkorra eta gardena egitea posiblea dela, onura orokorra eta herriaren nahia betetzeko gaudela eta ez norberaren onura pertsonalak. Denon artean herria eraldatu dugu, ekonomiko-ki urte zailak izanda, azken urteetan baino askoz gauza eta ekintza gehiago gauzatu dira eta hainbat arazo konpondu, gainera, soberakin ekonomikoarekin. Eta hemen gaude, orain dela lau urteko ardurara, ilusio eta gogoarekin zein urte hauetako eskarmentuarekin. Zurekin herria gara! Bozkatu EH Bildu Arakaldo!

OHARRA: Aiaraldea Hemen hamabostekariak alderdi guztiak gonbidatu ditu herritarrentzako mezuak idaztera. Hemen agertzen ez direnek uko egin diote mezua idazteari edo ez diote gonbitari erantzun.

Okondo

Hiru talde arituko dira alkatetza lortzeko lehian



2015eko udalbatzaren osaketaren irudia. Aiaraldea.eus

Testua
Txabi Alvarado Bañares

Okondo, herri txikia izanik, berezitasun ugari ditu hauteskundeetara dagokionez. 2015eko emaitzetan argi ikusi daiteke hori: Okondo Aurrera talde independenteak irabazi zuen, 284 boto lortuta. Oso gertu izan zuen EAJ, 280 botorekin. EH Bilduk, aldiz, 157 herritarren babe-

sa jaso zuen. Gauzak hala, Sergio Tatok zortzi urte daramatza Okondoko alkate gisa, lehen lau urteak EH Bildurekin eman baitzen. Aurtan berriz saiatuko da alkatetzara iristen. EAJ eta EH Bilduren 2015eko zerrendaburuek, aldiz, ez dute errepikatu. Naiara Otaola izango da koalizio independentistaren alkatetegaia eta Jon Escuza, aldiz, jeltzaleena.

HAUTAGAI NAGUSIEN HITZAK



SERGIO TATO
Okondo Aurrera



JON ESCUZA
EAJ-PNV

Auzokide agurgarriak: Lau urte igaro dira ilusiozko proiektu hau hasi genuenetik, OKONDO AURRERA; herritarrez osatutako taldea, beste alderdi politikoekin loturak aintzat hartugabe, gure bidea hasi eta gure herriarentzat lan egiteko konprometua hartu genuen. Une hartan ideiak zalantzak sortu bazituen ere, legealdi honetan zehar, gure lana eta lortutako emaitzak hartutako bidea bermatu egin dute. Hauteskunde hauetarako laguntza eskatuko dizut, eta horrela guztion artean Okondok behar dituen gai asko ekiten; etxebizitzak, azpiegiturak, lanpostuak, euskara, berdintasuna eta kultura, besteak beste. Izan ere, guretzat OKONDOK DU LEHENTASUNA.


Jasangarritasunean erreferente izan nahi dugu, birziklatzea hobetuz eta udal instalakuntzatan eta partikularretan energia berriztagarrien erabilera areagotuz.

Kirola eta kultura ere funtsezkoak dira bizi-kalitateko, garapen pertsonalari, aisialdiari eta osasunari laguntzen dietelako.

Hori dela eta, eskaintza kulturala eta kirolekaintza indartzearen alde egingo dugu.

Industria jardueraren finantzearen eta enpleguaren sustapenaren alde egingo dugu.

OHARRA: Aiaraldea Hemen hamabostekariak alderdi guztiak gonbidatu ditu herritarrentzako mezuak idaztera. Hemen agertzen ez direnek uko egin diote mezua idazteari edo ez diote gonbitari erantzun.



Urduña

EH Bildu eta EAJren arteko lehia izango da hauteskudeen ardatza



Urduñako zinegotziak, 2015eko udalbatzaren osaketaren ostean. Aiaraldea.eus

Testua

Txabi Alvarado Bañares

Gehiengo absolutuarekin gobernatu du EH Bilduk azken lau urteetan Urduñan. 2015eko udal hauteskundetan botoen %46.87 eskuratu zuen, 1.101 pertsonen babesa jasota. EAJk, aldiz, 844 boto jaso zituen (%35.93).

Urduñako Euskadiko Errepublikarren Batasuna talde politikoa hirugarren geratu zen 145 botorekin, baina ez zuen udalean ordezkari

ritza lortzeko gutxiengoa bildu. PSE-EE eta PP ere udaletik kanpo geratu ziren, 136 eta 91 boto pilatuta, hurrenez hurren.

Gauzak hala, azken lau urteetan EH Bilduren 6 zinegotzik eta EAJren bostek osatu dute udalbatza. 2011n ere gehiengo absolutua lortu zuen EH Bilduk (koalizioak 6 zinegotzi lortu zituen urte hartan, EAJk 4 eta PPK, aldiz, bat). Berez, emaitzek erakutsiko dute ea EH Bilduk hirugarrenez nagusitasunari eusten dion.

URDUÑA 2015



ZINEGOTZIAK GUZTIRA 11			
BOTOAK	%	ZINEG.	
EH BILDU			
1101	46.87	6	
EAJ-PNV			
844	35.93	5	
URE-EEB			
145	6.17	0	
PSE-EE			
136	5.79	0	
PP			
91	3.87	0	
ZURIAK	32	BOTO	
BALIOGABEAK	46	BOTO	

2011-2015 // EMAITZEN ERKAKETA

ALDERDIA	2015			2011			ALDAKETA		
	BOTOAK	%	ZINEG.	BOTOAK	%	ZINEG.	BOTOAK	%	ZINEG.
EH BILDU	1101	46.87	6	1160	46.31	6	-59	+%0.56	(=) ▲
EAJ	844	35.93	5	678	27.07	4	+166	+%8.86	-1 ▲
URE-EEB	145	6.17	0	152	6.07	0	-7	-%0.10	(=) ▼
PSE-EE	136	5.79	0	156	6.23	0	-20	-%0.44	(=) ▼
PP	91	3.87	0	168	6.71	1	-77	-%2.83	- ▼
ZENBAKETA: %100									

UDALBATZA BERRIAREN OSAERA

1. IDOIA AGINAKO (EH BILDU)	5. ERIZ PÉREZ (EH BILDU)	9. XABIER SOBRÓN (EAJ)
2. ITZIAR BIGURI (EH BILDU)	6. ELENA URRUELA (EH BILDU)	10. ROCIO MATIAS (EAJ)
3. LUIS FÉLIX GARCÍA (EH BILDU)	7. IÑAKI CUADRA (EAJ)	11. JOSEBA IÑAKIZADLA (EAJ)
4. JOSELU FERNÁNDEZ (EH BILDU)	8. M ^a DOLORES EGÍA (EAJ)	

HAUTAGAI NAGUSIEN HITZAK



NAIARA OTAOLA EH BILDU

EH Bildu Okondo jende konprometituak osatzen dugu. Bai zerrendan gaudenok bai gurekin elkar lanean JO TAKE arituko direnak Okondoko bizi kalitatea hobetzeko. Argi dugu ezker-tiarrontzat aukera bakarra garela. Gure bizilagunak dira garrantzitsuena. Herriarentzat onuragarriak diren proiektuen alde jardungo dugu. Horren guztiaren ardatza udal azpiegituren mantenu egokia izango da (eraikina, bideak, errepideak, ura, garbiketa...). Herriko elkarten ekimenak bultzatuko ditugu, eta guztion parte hartzea sustatu, denon elkarlanarekin egitea nahi dugu. Bereziki, harreman estua izango dugu herriko gazteekin, eurak baitira Okondoko etorkizuna.



ITZIAR BIGURI EH Bildu

Ilusionatuta, motibatuta, pozik eta prest nago erronka berri honi ekiteko. EH Bilduk Urduñan 2 legealdi daramatza gobernatzen. Eta urte guzti hauetan zehar gauzak aldatu ahal direla frogatuztat geratu da. Udala gestionatzen onenak izan gara, herritarren beharretara gaudelako.

EH Bildu bere herriarekin eta herritarrekin konprometitu dago. Guretzat parte hartzea beharrezkoa da eta horregatik gobernu hurbil, garden eta garbia eratzeak konpromisoa dugu.

Bizikidetzat proiektu parte hartzaile, berdintasuneko eta errespetuzko batean zenbat eta gehiago sinetsi, gero eta gehiago haziko da gure hiria.

Zurekin Urduña gara! Gora EH Bildu!



IÑAKI CUADRA EAJ-PNV

Urduña balioan jartzeko inplikaturak dagoen lan-talde bat dut nirekin, poligono industrialaren errealitatea izan dadin lan egiten duena. Igerilekuak eraberritu nahi ditugu, Nerbioi arroko jolas-parke onena bihurtzeko. Badugu horretarako proiektua. Hiritar guztiek tratatu berdina izatea bilatzen dugu, eta irisgarritasuna derrigorrezko puntua izatea hirigintzan. Gazteria egunerokoan izatea nahi dugu, udaleko politiken ardatzetako bat izanez. Turismoa eta merkataritza gure hiriaren irudia izatea nahi dugu. Hiri garbiagoa nahi dugu, zeinetan nagusiek euren esperientzia transmititu ahalko diguten. Urduña adierazpen kultural ororen eskura egotea nahi dugu. Funtsean, Urduña hazi arazi nahi dugu.



ZACARIAS GONZALEZ PSE-EE

Gure udalerrian nabarmena da langabeziaren arazoa. Horregatik uste dugu tokiko hitzarmen bat adostu behar dela, Administrazio guztietatik parte hartzeko akordio bat, modu horretan langabezia-tasa jaisteko. Hiriko auzo guztien garapen eta hobekuntza erraztuko dugu, bereizketarik egin gabe. Nagusikeriarik gabeko Udal Gobernu bat defendatzen dugu, zeinetan auzokideei ez zaaien euren filiazio politikoagatik galdetuko bere arazoak konpontzerako orduan. La Muera-ko igerilekuen proiektua berrartuko dugu, Urduñan merezi dituen azpiegiturak eraikiz bertan. Jubilatuentzako kluba eta etxebizitza sozialak ere sustatuko ditugu. Egon ziur gurekin Urduña udaletik gidatuko dela eta ez beste toki batzuetatik.

Artziniega

EAJ eta EH Bilduren arteko lehian, Alderdi Popularra erabakiorra izan daiteke berriro

Testua
Txabi Alvarado Bañares

Artziniegan ia argi esan daiteke EAJk edo EH Bilduk gobernatuko duela datozen lau urteetan. Baina PP erabakiorra izan daiteke. 2015ean EH Bilduk irabazi zituen hauteskundeak, baina oso-oso gutxiatik. Gauzak

hala, EAJk gobernatu du ordutik hona, PPk jeltzaleei eman baitzien botoa.

Horregatik, Alderdi Popularraren emaitzak ere berebiziko eragina izan dezake hauteskunde ostean egon daitezkeen negoziatioetan. 2011n 178 boto lortu zituen. Duela bost urte, aldiz, 178.

UDALBATZAREN EGUNGO OSAERA		
1. JOSEBA VIVANCO (EH BILDU)	5. INIGO GOMEZ (EAJ)	9. JOSEBA ELEJALDE (PP)
2. ALAZNE LAFRAGUA (EH BILDU)	6. INMA VIVANCO (EAJ)	
3. ARKAITZ SAN JOSE (EH BILDU)	7. JOSE LUIS DEL VALLE (EAJ)	
4. UNAI GOTXI (EH BILDU)	8. MARIA LORENTE (EAJ)	


2011-2015 // EMAITZEN ERKAKETA									
ALDERDIA	2015			2011			ALDAKETA		
	BOTOAK	%	ZINEG.	BOTOAK	%	ZINEG.	BOTOAK	%	ZINEG.
BILDU	395	%41,10	4	335	%33,27	3	60	+%0,08	1 ▲
EAJ	384	%39,96	4	424	%42,11	4	-40	-%0,02	0
PP	118	%12,28	1	178	%17,68	2	-60	-%0,05	-1 ▼
PSE-EE	41	%4,27	0	49	%4,87	0	-8,00	-%0,01	0
ZENBAKETA: %100									

Orozko

Adiek bere nagusitasuna berretsi beharko du

Testua
Txabi Alvarado Bañares

2015eko emaitzak oso onak izan ziren Adierentzat. Orozko-ko talde independenteak botoen %52,78 eskuratu zuen, 778 herriarren babesa jasota. EAJk eta EH Bilduk emaitza xumeagoak lortu zituzten: 385 eta 267 boto, hurrenez hurren. Gauzak hala, nagusitasun hori mantentzea izango da Adieren erronka maiatzaren 26ko udal hauteskundeetan. Pedromari Intxaurrea izango da taldearen zerrendaburua, Josu San Pedrori lekukoa hartuta. EAJ eta EH Bilduren alkategaiak ere berriak izango dira. Koalizio abertzaleak Pili Garcia aurkeztu du Orozkoko alkate izateko eta jeltzaleek, aldiz, Ainara Apraiz. Hirurak dira aurpegi berriak -Intxaurrea, Garcia eta Apraiz-. Gauzak hala, hautagai aproposak direla erakutsi beharko diete herritarrei.



2011-2015 // EMAITZEN ERKAKETA									
ALDERDIA	2015			2011			ALDAKETA		
	BOTOAK	%	ZINEG.	BOTOAK	%	ZINEG.	BOTOAK	%	ZINEG.
ADIE	778	%52,78	6	668	%43,89	5	+110,00	+%8,9	+1 ▲
EAJ	385	%26,12	3	535	%35,15	4	-150,00	-%9,0	-1 ▼
EH BILDU	267	%18,11	2	244	%16,03	2	+23,00	+%2,1	0
PP	23	%1,56	0	62	%4,07	0	-39,00	-%2,51	0
PSE-EE	4	%0,27	0	7	%0,46	0	-3,00	-%0,19	0
ZENBAKETA: %100									

EGUNGO UDALBATZAREN OSAERA		
1. JOSU SAN PEDRO (ADIE)	5. BERENICE RODRÍGUEZ (ADIE)	9. ESTANISLAO ETXEBARRIA (EAJ)
2. ARKAITZ OLABARRIA (ADIE)	6. JOSE URRAZA (ADIE)	10. ZEGOR GOROSTAGA (EH BILDU)
3. BEGOÑE OLABARRIA (ADIE)	7. BITTOR OLAGUENAGA (EAJ)	11. PILAR GARCIA (EH BILDU)
4. RAKEL OLAVARRIA (ADIE)	8. IZASKUN GAZTELU (EAJ)	

HAUTAGAI NAGUSIEN HITZAK



JOSEBA VIVANCO
EH Bildu

"Eman bostekoal". Hori da EH Bildu Artziniegak alkatetzarako kanpaina honetarako aukeratu duen leloa.

Arrazoi oso argia da: duela lau urte udal hauteskundeak irabazi egin genituen eta ez badugu nahi Artziniega EAJ eta PPren artean truke-txanpon modura erabiltzea, ahalik eta babes eta boto gehien lortu beharra dugu.

EH Bildu gai izan bazen Javier Maroto Gasteizko alkateztatik kanpo uzteko (inork imajinatzen ez zuen gauza ba) zergatik ezin ditugu guk hauteskunde hauetan bost zinegotzi eskuratu?

Horregatik gurekin amets egitera animatzen zaitugu.

Eman bostekoal!



ENCINA CASTRESANA
EAJ-PNV

Artziniegakoa naiz. Beti gustatu izan zait nire herriko jendearen bizitzari ekarpena egiten diodala sentitzea. Artziniegan aukera izan dut ume eta gazteekin boluntario gisa lan egiteko eta pertsona gisa aberastu nauen lan sozial bat garatzeko. Pertsona hurbila naiz, elkarrizketaren aldekoa eta konprometitua, gure inguruan dauden arazo sozial eta ekonomiko guztiengatik kezkatua dagoena, pertsona guztiak bezala. Uste dut garrantzitsua dela herri gisa aurrera egitea, Artziniega bizitzeko toki erosoagoa bihurtzea, zerbitzu gehiago eta hobeagoekin baina gauza txikie ere garrantzia eman. Zuen konfiantza eta babesarekin gure herriaren etorkizunean inplikatu nahi dudalako.

HAUTAGAI NAGUSIEN HITZAK



PEDROMARI INTXAURREA
Adie

Ezagutzen gaituzu. Badakizu azken zortzi urte hauetan Orozkoren alde gure esku egon dena egin dugula. Gure herrirako erabaki garrantzitsurik ez dugula hartu zuekin kontatu barik, eta urtero herritarren dirua zertan gastatzea nahi duzue galdetu dizuegula. Beti egin dogula apustu garbia gestio zintzoaren alde eta ahalegindu garela ahalik eta emaitza efizienteenak topatzen.

Horixe egiten jarraitu gura dugu datozen lau urteetan, baita paus bat aurrera egin ere. Udaletxea gehiago zabalduko dugu, denon etxea izatea gura dugu, gure etxea, zurea. Guk ilusioa eta kapazitatea dauzkagu guztion etxea gestionatzeko. 26an zeuk erabakiko duzu etxe horretako giltzak nori utzi.



AINARA APRAIZ
EAJ-PNV

Orozkorako EAJko hautagai taldeak esker oneko eta elkarlanerakogonbidapen mezua luzatu nahiko luke. Udaletik eguneroko gaiak konpontzeko, ordua da komunikazio hutsetik ekintzetara pasatzeko: auzoei arreta zor zaie, egiazko zerbitzuak eskainiz. Interneteko banda zabala etxe guztietara eramatea, erdigunean zabor edukiontzia ikusgarriak jarri baino, herri osoan berrerabilpena bultzatzea; auzoen eta hirigunearen zein hiriburuekiko mugikortasuna erraztea, garraio publikoko aukerekin; AP-68ko eskumenaren aldaketa gauzaturik, erabiltzaileentzako dirulaguntzak bideratu Bizkaian ere... Horretarako pertsona konprometitu eta arras prestatutakoen taldea osatu dugu, eta haien zati zuten babesa eskatzen dugu.



PILI GARCIA
EH BILDU

Askotan galdetzen diogu gure buruari zerk mugitzen duen mundu hau. Zein da herri honen motorea? Erantzuna argia da: Herria. Herriak egiten du beste mundu bat amestea posible. Herriak dauka errealitatea aldatzeko gogo, konpromisoa eta indarra. Herria da bizirik gaudelaren islarik argiena. Bizirik dena aldatzeko, bizirik bizitzeko erdigunean jartzeko. Orozkon euskararen erabilera indartu nahi dugu. Etorri berrien bizi kalitatea ere hobetu nahi dugu, harrera herria izan nahi dugu. Lehen sektorea herriaren motorea dela ulertzen dugu, eta honi, eman beharreko garrantzia ohartarazi. Orozko, herri seguru, parekide, aske eta morea nahi dugu. Zurekin, herri justu eta duinago bat eraiki nahi dugu!

Aiara

HAUTAGAI NAGUSIEN HITZAK



GENTZA ALAMILLO EAJ-PNV

Aiara hazi eta hezitakoa naiz. Harrotasunez esan dezaket Aiara nire etxea dela, ardu- eta ilusioz beteta ekingo diot udalerrri berezi honetako herritarrek ordezkatzeko erronkari. Etengabe entzutea, gure herritarrek kezkatzen dituen gaiak jorratzea eta etengabeko ardu- eta iraizunak nire ibilbidearen zutabeak, aiararren orainaldia eta etorkizuna eraikitzeko oinarriak ere.

Gure helburua kudeaketa publiko gardena aurrera eramatea da, gure herritarren, gure herrien eta sare sozial, ekonomiko eta kulturalaren bizi-kalitategia bermatuko duena.

Horretarako, zure laguntza behar dut, eta guztion artean Aiara hobe bat eraikiko dugu.



KARMELE POBLACION EH Bildu

Aiarako Udalerria benetako al-daketa EH Bildurekin heldu zen 2011n eta bide horretan sakondu nahi dugu, herriaren zerbitzura, gardentasuna, parte hartzea eta taldeen arteko elkarlana bultzatuz. Gure eredu feminismoarena da, justizia sozialarena. Berdintasuna bizitza arlo guztietan ulertzen dugu. Emakumeen kontrako biolentzia borrokatuko dugu. Euskararen erabileran aurrerapausoak eman nahi ditugu, gauden egoeran uztea atzera joatea baita, eta euskaraz bizitzeko bermeak jarri nahi ditugulako. Aiararako proiektu bat dugu, 24 herriak artikulatzeko eta beraien arteko harremanak sendotzeko. Gure konpromisoa herritarrekin da soilik eta talde indartsu eta anitza osatzen dugu.



IRATXE PARRO Aiara Batuz

Bozka eman ahal duten aiarrak guztiei zuzentzen naiz. Zergatik alderdi politikoei, herritarren ideiei, bere partidismoan oinarrituta kudeatu behar dituzte? Aiara ohituta gaude, gure herrietan Kontzejuak daude eta erroldatuta gauden guztiok, ahotsa eta botoa emateko aukera dugu, guk erabakitzen dugu.

Aiara Batuzek hori nahi du udaletxerako ere, ideiak plazaratu, entzun, aztertu, eta ondoren, aiarrak garen heinean, eztabaidatu erabaki bat hartzeko. Plataforma herritar independentea gara, ez dugu ideologia partidistarik.

Parte hartu gehiengo absolutu baten kontra eta bozkatu Aiara Batuz, beti herrien alde lan egiten.

ZINEGOTZIAK GUZTIRA			11
BOTOAK	%	ZINEG.	
EAJ-PNV	648	40.20	5
BILDU	571	35.42	4
AIARA BATUZ	245	15.20	2
ZURIAK		17 BOTO	
BALIOGABEAK		21 BOTO	
ERROLDA		2266	
ABSTENTZIOA		%27.93	

UDALBATZA BERRIAREN OSAERA	
1. GENTZA ALAMILLO (EAJ)	
2. IÑIGO PINEDO (EAJ)	
3. JOSE A. BARTOLOME (EAJ)	
4. MONTSE ANGULO (EAJ)	
5. SUSANA MARTÍN (EAJ)	
6. JOSU ARTETXE (EH BILDU)	
7. LAUREN URÍA (EH BILDU)	
8. NEREA GOTI (EH BILDU)	
9. ESTEBAN HERNANDO (EH BILDU)	
10. IRAIDA SAENZ (AIARA BATUZ)	
11. XABIER ARTIÑANO (AI BATUZ)	

Hiru talde politiko nagusi 24 laukiko xake-taulan

Testua
Aitor Aspuru Saez

Azken lau urteetan hiru izan dira Aiarako Udalerria ordezkaritza izan duten talde politikoak: EAJk izan du alkatetza, 2015eko udal-hauteskundeetan 648 boto lortu baitzituen.

EH Bildu izan zen bigarren indarra, 477 herritarren babesarekin. Aiara Batuz talde independenteak, aldiz, 245 boto jaso zituen. PPK boto jaitsiera handia izan zuen urte horretan, eta ordu-ra arte izan zuen zinegotzia galdu zuen. Hori erabakigarria izan zen EAJrentzat.



2015ko udalbatzaren osaketaren irudia. Aiaraldea.eus

Gauzak hala, maiatzaren 26ko udal hauteskundeetan ikusi beharko da ea jeltzaleek euren na-

gusitasuna mantentzerik duten. Lortuko balute, Gentza Alamillo izango litzateke berriz alkatea.

PILI GARCIA

Sokaldaria, 2015etik EH Bilduko zinegotzia. Bi seme-alaba ama.

1. Faxismo eta xenofobia olatuaren aurrean, eskubide guztiak herritar guztientzat
2. Har dezagun euskaraz bizitzeko rola, izan gaituzten ahobizi eta belarriprest!
3. Bizitzak erdigunera eramateko feminismoa blaitu nahi dugu Orosko
4. Lehen sektorean etorkizunera begiratzea ezinbestekoa da

Zurekin OROZKO gara

Laudio

Zalantza asko mahai gainean



2015ko udalbatzaren osaketaren irudia. Aiaraldea.eus

Testua


Txabi Alvarado Bañares

Tentsioz betetako hauteskundeak izango dira Laudio-koak, azken unera arte ez baita jakingo zer gertatuko den.

Aldagai asko daude mahai gainean: EH Bildu eta EAJren ohiko lehiari Omnia duela lau urte lortutako nagusitasuna gehitu behar zaio. Era

berean, Elkarrekin Podemosen agerpenak politika laudioarreko xake-taulan izan dezakeen eragina ere izan behar da kontuan.


Ezinegona, gainera, ez da hauteskundeekin batera amaituko, garaipen argirik ez badago talde politikoek elkarren artean negoziatu beharko baitute ekainean udal gobernua osatzeko.



2011-2015 // EMAITZEN ERKAKETA

ALDERDIA	2015			2011			ALDAKETA		
	BOTOAK	%	ZINEG.	BOTOAK	%	ZINEG.	BOTOAK	%	ZINEG.
EH BILDU	2902	31.43	5	3145	31.94	6	-243	-%0.5	-1 ▼
EAJ-PNV	2443	26.46	5	2835	28.79	6	-392	-%2.3	-1 ▼
OMNIA	1989	21.54	4	898	9.12	1	+1091	+%12.42	+3 ▲
PSE-EE	1102	11.94	2	1167	11.85	2	-65	-%0.09	(=) ▼
PP	579	6.27	1	1066	10.82	2	-487	-%4.55	-1 ▼

ZENBAKETA: %100 // (% Boto baliodunen gaineko ehunekoa)



**IÑIGO PEDRUZO
PP**

ALDATZEKO garaia da. Eskualdeko burua izatea merezi du Laudio, zentzu guztietan. AUKERA BERDINTASUNAREN unea da. Aukerak guztientzako izatea behar du Laudio. Gure herriaren jabeak bertako bizilagunak dira, ez gobernariak. #BERRITZEKO unea da, #AURRERA egiteko. Politika konformistekin soilik jarraitzen badugu ezingo dugu inoiz aurrera egin. Laudio haize berria hartu behar du, bultzada, birsorkuntza, ideia berriak, aukera eta ilusio berriak.

ALDAKETAGATIK apustu egiteko unea da, guztion BERTINTASUNAGATIK, berritzeko, AURRE-RA egiteko.

HAUTAGAI NAGUSIEN HITZAK

OHARRA: Aiaraldea Hemen hamabostekariak alderdi guztiak gonbidatu ditu herritarrentzako mezuak idatzera. Hemen agertzen ez direnek uko egin diote mezua idazteari edo ez diote gonbitari erantzun.



**NATXO URKIXO
EH BILDU**

Herriarrek modu eraginkorrean parte hartzen jarraitzea izango dugu helburu. Bertan erabaki! Guztion artean erabakiko dugu nolako herria eraiki nahi dugun; herritarren aktibazioa EH Bilduren erronka. Bertintasun eredu batera igarotzeko urratsak ari gara ematen eta beharrezkoa da oinarri feministak garatzen jarraitzea. Euskararekiko konpromisoa egunero koan erakutsiko dugu. Gure hizkuntza-politikarekin koherenteak izango gara. Herri mugimenduak ematen dio bizitzaren herriari. Laudio kultur jardueren topalekua; horixe gure xedea! Laudioarren bizi-kalitatea bermatu enplegu duinak sortuz eta sustatuz. Bertan lan, ikasi, bizi eta erosi!



**ANDER AÑIBARRO
EAJ-PNV**

Ilusioa eragin, laudioar izatearen harrotasunari etekina aterara, herri bat izatetik, herria egitera pasa. Laudio azken urteetan aukera ugari utzi ditu bidean eta bertan bizi garen eta lan egiten dugunok ausardiaz, kementsu eta zorrotz etorkizunak eskainitako aukera berriei ekin behar diegu. Herritarrei ongizatea bermatu, herria eraikitzeko azpiegitura eta zerbitzu egokiak antolatu eta hori guztia, udal kudeaketagarden, eraginkor eta hurbil bat abian jarri.

Laudio norabide berri bat merezi du; laudioarren herri paregabe batekoa izateagatik harrotasuna berreskuratu behar dute. Eta horretarako, lanean hasteko prest gara!



**ALVARO BARRIOS
Omnia**

Talde municipalista batek gobernatu ahal izateko, jendeak euren herria gero eta okerrago ikustean gertatzen da. Horrexegatik gure garaia da.

Alkate aukeratzekotan, nire ahalmena eta ezaguera guztia zuen zerbitzura jartzea hitzema ten dut, laudioarren aurrean nire buruzagiak izan zaitezten, batzuek ahaztu arren, zuek Laudio ren buruzagiak zarete eta udal kudeatzaileok zuen zerbitzura gaude eta ez alderantziz.

Zure ilusioa, gauzak beste modu desberdin batean egin daitezkeen gogoak eskatu nahi ditut. Izan zaitez aldaketa horren partaidea.

Zure botoarekin, ZUK JARTZEN DUZU LAUDIO ABIAN.



**JUANJE MERCHAN
PSE-EE**

Bizilagunek hautatu behar dute ea gure udala urte hauetan gobernatzen egon diren indarren jarraitkortasunezko gobernu bat nahi duten, Laudioarentzat oztopoak eta denbora eta aukera galera ekarri duena. Edo ea ziurgabetasunezko gobernu bat nahi duten, beste instituzio batzuetan ordezkartzarik ez duten indarrek osatutakoa.

Edo PSE-EEren gobernu bat, beste instituzio batzuetatik inbertsio garrantzitsuak ekartzea lortu duena lege-agintaldi honetan, parkearen erreforma edota etorkizuneko araztegien eraikitzea kasu. Laudioarentzat aukera bat sortu dezakegu, elkarriketa, lasaitasuna eta, batez ere, enpatia izango dituen udal batekin.



**MIGUEL BURDALLO
Elkarrekin Podemos**

Kaixo, laudioar hori!

Laudioko Udalako Elkarrekin Podemosen hautagaitza aurkeztu nahi dugu, XXI. mendera eramango gaituen aldaketa bultzatzeko helburuarekin: ilusio handiagoa, konpromiso handiagoa, zerbitzuen kudeaketa hobea. Gure edadetuek erretiroa gozatu ahal dezaten, gure seme-alabentzat etorkizuna, kultura eta aisia eskaintzen duen Laudio bat nahi dugu, kalitatezko enpleguarekin, eta landa eremuaren eta industriaren arteko bizikidetzaz sangarria bermatzen duen eta mailako Laudio bata nahi dugu. Konpromisoarekin eta umiltasunez lan egingo dugu, eta horretarako zure botoa behar dugu maiatzaren 26an. Agur bero bat.

Amurrio

Talde politiko asko aulki jokoan aritzeko prest




2015ko udalbatzaren osaketaren irudia. Aiaraldea.eus

Testua
Txabi Alvarado Bañares

Amurriokoa da gaur egun Aiaraldeko Udalbatzari anitzena. Sei talde politikok dute ordezkaritza bertan: EAJk, EH Bilduk, Orain Amurriok, PSE-EEk, PPk eta Amurrio Guk Bai-k.

Horregatik, datorren maiatzaren 26ko udal hauteskundeek aukera asko jarriko dituzte mahai gainean, talde batek lortutako emaitzek eragin zuzena izan dezaketelako beste batek gobernatzeko aukeretan. Gauzak hala, Laudion bezala, hemen ere garrantzia izan de-

zakete hauteskundeak pasata egingo diren negoziaketek. Bestalde, Vox aurkezteak eragin zuzena izan dezake PPren emaitzetan. Bi alderdiek bat besteari botoak kendu ahal dizkiote, baliteke biak udaletik kanpo geratzea, beste talde batzuen mesederako.



HAUTAGAI NAGUSIEN HITZAK

OHARRA: Aiaraldea Hemen hamabostekariak alderdi guztiak gonbidatu ditu herritarrentzako mezuak idatztera. Hemen agertzen ez direnek uko egin diote mezua idazteari edo ez diote gonbitari erantzun.



JOSUNE IRABIEN
EAJ-PNV

IÑAKI IBARLUZEA
EH BILDU

KEPA GONZALEZ
Orain Amurrio

DAVID ROMERO
PSE-EE

BEATRIZ IZAGIRRE
Guk Bai

Amurriok kalitazteko kudea-keta merezi du, herritar guztioi entzunda eta betiere, eguneroko lana ardatza izanez. Hortaz, herri aktiboa eta bizitza-kalitatea eusten dion proiektuan Amurrioko alkatetzarako aurkeztzen gara berriro ere. Bizitza aktiboa duena eta harro dagoen herri bateko ilusio-ordezkaririk gara; geroari erantzukizuna eta hazteko bidea hartu nahi dion herria, hain justu. Amurriodinamikoa, ekintzailea, bidezkoa, euskalduna eta ingurumen-zaintzailea egingo den ilusioz beteriko lana da gurea. Baina ezin dugu bakarrik egin. EAJ-PNV taldeagareta herritarrokin kontatu nahi dugu. Amurrio hobetzen jarraitu nahi dugulako, elkarrekin. Amurriok mugitzen gaituelako.

Elkarriketa eta akordioaren bitartez aterako ditugu gure proiektuak aurrera, orain arte egin dugun modu berean. Argazkia eta dominak bilatu beharrean, amurriotarren interesak izango ditugu helburu. Eta zuloak estaltzen aritu beharrean, epe ertain-luzerako politikak zehaztuko ditugu. Gure lan-leerroak argiak dira: Langabezia tasa jeisteko neurriak, behar dutenei eman beharreko arreta eta laguntza handitzea, euskara eta berdintasuna zeharkako ardatz izatea, etxebizitzaren arazoari aurre egitea eta funtzionatzeko modu irekia, gardena eta parte hartzailea bermatzea, kirol, kultura eta gainerako elkarteetan iritzia kontuan izanik.

Gehiengo sozialaren alde lan egiteko jaio zen ORAIN AMURRIO. Lau urte hauetako lanaren bermearekin aurkeztzen gara. EAJ-PSOeren politika pribatizatzaileei eta EH-BILDUREN etengabe-ko abstentzioari aurre egiteko. Proposamen alternatiboak egiteko. Kalitatezko zerbitzu publikoengatik eta lan duinagatik, prekarietatearen aurka, emakumeen berdintasunarengatik, etxebizitza eta alokairu sozialaren alde, animalien indarkeriaren aurka, gazte/zaharren beharrik beteko dituen inbertsio politika baten alde udaleraikinetan, euskararen alde. Pertsonak garrantzizkoenak garelako, umil zuen bozka eskatzen dizuegu. Mila esker.

Amurrioko bizilagunek aukera duzue berriro zuen etorkizuna markatu eta erabakitzeko. Sozialistok zurekin elkarbanatu nahi dugu, herriak aurrera egiteko alternatiba garelako. Jende orok bizi-kalitate hobea izateko egin nahi dugu lan, konponbideak eman nahi ditugu. Interes publiko eta kolektiboan, aurrerapenean, berdintasunean eta elkartasunean sinesten dugulako, udala delako gure behar eta iritziak adierazteko tresnarik onena. Gure komunitateari begiratzeko eta elkarlanean aritzeko unea da, konpromiso eta ilusioarekin. Zurekin kontatzea espero dut, Amurrio denok nahi dugun herria bihurtzeko. Batera egin nahi dugu, zurekin, zure ahotsarekin eta zure botoarekin.

Programa hau kirol, jendarte eta kultur elkarteetan eta norbanakoekin izandako hainbat topaketa eta bileren ostean gertatu dugu, GUK BAI osatzen dugun pertsonen ekarpenak ere gehituta. Gure bizilagunen beharrak ordezkatzeko espero dugu modu horretan. Lege-agintaldi honetako lau urteetan ahal zen guztia egin dugu gure bizilagunen bozboragailu izateko. Oso pozik gaude, 2015ean aurkeztu genuen programaren %80a bete delako. Guztiok aukerak berdina izango ditugun Amurrio baten alde lan egiten jarraituko dugu. Ez gaitu inork kontrolatzen. Ez dugu interes pertsonal edo partidistarik. Politika egin daiteke politika ogibide bihurtu gabe.

erreportajea



“Bai, we can”, instituzioetan euskara zabaltzeko giltza

Positiboki baloratu du Aiaraldeko Euskalgintza Kontseiluak euskara hauteskunde kanpaina eta instituzioetan erdigunean kokatzeko “Ez we can’t” ekimena. 31 alderdirekin egin du harreman bira Kontseiluak, eta hauetako 26k hartu dituzte euskararen normalizazioan eraginkortasunez aurrera egiteko konpromiso zehatzak.



Testua **Izar Mendiguren Cosgaya**

“Ez we can’t” lelotik “Bai we can” egoerara ailegatzeko ekimena aurkeztu zuen Aiaraldeko Euskalgintza Kontseiluak duela bi hilabete. Martxoaren 25az geroztik bi dinamika jarri dituzte abian: eragile politikoei harreman bira eta herritarrei bideratutako sinadura bilketa. Hala, hiru eskaera zehatz egin dizkiete alderdi eta plataforma independenteei: alkatagai eta zinegotzi izateko aurkeztu dituzten pertsonen gutxieneko euskara gaitasuna izatea, hauteskunde kanpainan euskara presente egotea eta euskararen normalizaziorako 11 neurri zehatz hartzeko proposamena.

Saraubeko mahaian aurkeztuko dute bihar lankearen emaitza: 31 alderdirekin osatu

dute harreman bira, eta 26 taldek konpromiso argiak hartu dituzte datozen lau urteetan hizkuntzaren biziberritzean aurrera egiteko. “Dinamikaren helburua eskualdeko udal hauteskundeetara aurkeztu ziren alderdi eta plataforma politikoei euskaldunon hizkuntz eskubideak errespetatu eta euskara Aiaraldean biziberritzeko konpromiso eraginkorrak eskatzea izan da”, zehaztu dute. Aitortza publikoa egiteko antolatuko dute ekitaldia: “Oso balorazio positiboa egiten dugu alderdiek emandako erantzunaz, asko eskertzen dugu proposamenak aztertu, landu eta gaiaren inguruan hausnartzeko hartutako denbora eta egingadako ahalegina”. Interes politikoetatik harago, euskara erdigunean jartzea lortu dutelakoan daude, “ia kolore guztietako taldeek hartu dituzte

Euskalgintza Kontseiluak proposatuko konpromisoak”.

Legeak babestuta

Espainia zein EAE mailako legeetan oinarritu dituzte eskakizunak, hizkuntza eskubideak benetan errespetatu daitezkeen. Horregatik, konpromiso-hartze horiek egikartzeko “urrats atzeraezintzat” jo dute dinamika Kontseilu kideek. Izan ere, oinarritzko konpromisoak eskatu dituzte, horien gauzatzeari buruzko neurriekin batera. Helburuetako batzuk lege-agintaldi honetan gauzatzeari buruzko esperotuta, eta gainontzekoak betetzeko baldintzak sortzea izango dute aurrerantzean xede, “alderdiekin gogoeta ziklo berriak konpartituz”.

Urratsen garrantzia

Hartutako konpromiso guztiak dira garrantzitsuak Kon-

tseiluaren ustetan: “Euskararen biziberritzeak behar duen herrigintza eta instituzioen arteko bide estrategiko partekatua erdiesteko lehen harria da hau”.

Aurrera begira, elkarlana izango da, beraz, euskararen normalizaziorako lanabes inportanteena sustatzaileen iriziz.

Ekitaldia bihar

Biharegingo dute Aiaraldean atxikitutako 26 alderdien ordezkariekin agerraldia: “Saraubeko mahaia duen esangura politikoa gogoan izanda, konpromisoak hartu dituzten alderdiekiko aitortza publikoa egitearekin batera, Aiaraldean euskarari aro berri bati ateak ireki zaizkionaren uste sendoa dugu, bide atzeraezin baten lehen urratsak ematen ari gara”.

11 KONPROMISO ZEHATZAK

1. Udal aurrekontuaren %2 bideratzea euskararen normalizazio politiketara

2. Hizkuntz normalizaziorako giza baliabide kopurua (teknikariak, itzul-tzaileak...) eusko Jaurlaritzaren irizpideen araberrakoak izatea

3. Udalaren kanpo komunikazio guztia %100ean euskaraz irakurtzeko aukera ahalbidetzea, zabalpen kanal publiko guztietan

4. Udal aldizkari eta argitalpenetan %100ean bermatzea elebitasuna, eta euskara lehenestea grafikoki

5. Arreta zerbitzu publiko erabilienetan euskarazko komunikazioa %100ean bermatzea

6. Udalarekin euskaraz soilik harreman nahi duten herritarren errolda osatzea, eta hori bermatzeko neurriak hartzea

7. Udalak euskara ordenantza propioa osatzea edo eguneratzea

8. Diru publikoa jasotzen duten entitate eta elkarleen kanpo komunikazioan hizkuntz irizpideak betetzeko derrigortasuna ezartzea, bi hizkuntza ofizialak maila berean agertzeko jarraipen baliabideak eta irizpideak ezartzea

9. Udalaren kanpo kontratazioetan hizkuntz irizpideak ezartzea eta bermatzea

10. Udal lanpostu berrietan zein ordezkapenetan dagokion hizkuntza eskakizuna bermatzea, derrigortasun datak ezarritako eta betearaziz

11. Udala eta herritarren arteko bileretan euskaraz aritzeko aukera bermatzea

Araba

Aiaraldeko bizilagun ugari, eskualdea Araban ordezkatzeko prest

Testua

Txabi Alvarado Bañares

Maiatzaren 26an ez dira udal hauteskundeak soilik egingo, Bartzar Nagusietarako ordezkariak ere hautatu beharko baitituzte herritarrek.

Aiaraldeko udalerri arabarretan (Aiaran) hainbat alderdi eta talde politikok aurkeztu dituzte Arabako Foru Aldundia gobernatzeko zerrendak. EH Bilduk Ainhize Solaun Mendiguren amurriarra aurkeztu du zerrendaburu, EAJk Marian Olabarrieta Ibarrondo, Omnia alderdi audioarrak Aitor Anchia Escobar, PSE-EEK Francisca Macias Gonzalez audioarra, PPK Joseba Elejalde Ribacoba artziniegarrak, Elkarrekin Podemos Txema Ruiz De Apodaca eta Vox-ek Daniel Ollora.

Azken lau urteetan EAJ eta PSE-EE egon dira Arabako Foru Aldundian gobernatzen, 9 eta 2 diputaturekin, hurrenez hurren.

EH BILDU

1. Ainhize Solaun Mendiguren
2. Nerea Martinez Cerrillo
3. Beñat Mendiguren Cosgaya
4. Maria Irene Isusi Odiaga
5. Juan Jose Yarritu Ruiz De Gordejuela

Ordezkoak

1. Joseba Vivanco Retes
2. Nerea Goti Valle
3. Itziar Camino Montalban

EAJ

1. Marian Olabarrieta Ibarrondo
2. Onintze Guerra Aldama
3. Ainhoa Campo Arenaza
4. Jose Angel Eguia Basarrate

5. Luis Maria Lorente Treku

Ordezkoak

1. Zigor Eguia Suances
2. Miren Izaskun Perez Barragan
3. Ibai Ruiz Conde

OMNIA

1. Aitor Anchia Escobar
2. Miguel Villanueva Alonso
3. Sonia Barbara Montero
4. Soraya Moral Sanchez
5. Raquel Masa Andrades

PSE-EE

1. Francisca Macias Gonzalez
2. Ander Dominguez Muriel
3. Nuria Gonzalez Cabrera

4. Marcos Maroto Maeso

5. Maria Nieves Gutierrez Arenas

Ordezkoak

1. Julian Larisgoitia Zarate
2. Isabel Aguinaco Garrido
3. Iñaki Araico Gomez

PP

1. Joseba Elejalde Ribacoba
2. Zuriñe Castañiza Barbara
3. Ivan Palomino Gonzalez
4. Montserrat Canive Aldama
5. Alejandro Del Carmen Lasa

Ordezkoak

1. Yaiza Muriel Jimenez
2. Iñigo Pedruzo Abasolo
3. Paula Cuesta Garcia

ELKARREKIN PODEMOS

1. Txema Ruiz De Apodaca Lopez De Arroyabe
2. Judith Martin Martinez
3. Amaia Nekane Gomez Avila
4. Pablo Anel Bocca Schmuñez
5. Santa Bautista Nevado

VOX

1. Daniel Ollora Moreno
2. Azahara Lopez Exposito
3. Ramon Francho Miguel
4. Ana Ibañez Sarralde
5. Carolina Scarpetta Ramirez



BOZKATU ehbildu

Zurekin
AIARALDEA gara

Aiaraldea

Alkategaien bideo elkarrizketak eta debateak izango dira, besteak beste, plater nagusia. Aiaraldeko udal hauteskundeetako emaitzen artxiboan bilduta daude 1979tik 2015era bitarteko herri guztietako emaitzak.

Udal eta foru hauteskundeek jarraipen berezia egingo du Aiaraldea hedabideak



Hauteskunde gaueko emaitzen zuzeneko jarraipena egingo du Aiaraldea hedabideak. Argia.eus

Testua
Izar Mendiguren Cosgaya

Maiatzaren 26an izango dira udal eta foru hauteskundeak. Aurtengoan, gainera, Europako ordezkariak ere hautatu beharko dituzte herritarrek. Aiaraldea hedabideak hauteskundeek atari berezia prestatu du jarraipena egiteko.

40 urteetako emaitzak

Aiaraldea.eus atarian egongo den webgune berezian pilatuko dira hauteskundeek lotutako eduki guztiak. Bertan daude, besteak beste, azken 10 udal hauteskundeetako Aiaraldeko herri guztietako emaitzak, 1979 eta 2015 artekoak, hain zuzen. Hauteskunde kanpainako ekitaldi nagusien argazki kronikak ere ekoitziko ditu hedabideak.

Debateak alkategaiekin

Bestalde, alderdietako zerrendaburuen elkarrizketak eta debateak plazaratuko dira, bideo formatuan. Horrez gain, alderdi bakoitzaren ekitaldi bana jasoko da argazki kroniketan. Gainera, artikulua seriea prestatu dute kazetariak, ikuspegi ezberdinak azalertzeko.

Beste nobedadeetako bat irakurleen artean hauteskundeek

Bideo-elkarrizketak eta eztabaidak plazaratuko dira herri guztietako alkategaiekin

Webgune berezia atondu da hauteskundeek azken urteko emaitzekin, zerrenda guztiekin eta bestelako edukiekin

Hauteskundeek biharamunean gehigarri berezia plazaratuko du Aiaraldea

eragina neurtzeko inkestak izango dira. Ildo beretik, herriko porrak jarriko dira erabiltzaileen eskura, zinegotzi kopurua asmatze aldera.

Egunkari bereziak

Esku artean duzun Aiaraldea Hemen hamabostekarian hauteskundeek buruzko gehigarri berezi hau plazaratu da. Maiatzaren 27rako -hauteskundeek biharamunerako-, berriz, 32 orriko edizioa prestatzen dihardu hedabideko lantaldeak.

Zuzeneko jarraipena

Maiatzaren 26an bertan, udal eta foru hauteskundeek zuzeneko jarraipena egingo da, aiaraldea.eus atarian. Hala, sare sozialetan zuzeneko kontaktak egingo dira, herri eta auzoetako giro zein emaitzak zabaltzeko.

Ohiko artikuluek gain, zenbait analisi eta argazki zein bideo kronikak ekoitziko dira. Halaber, alkategaien emaitzen irakurketak bilduko dira, nola webgunean hala biharamuneko egunkari berezian argitaratu emateko. Horrenbestez, Aiaraldea hedabideak multimedia formatu anitzetan emango dio zabalkundea eskualdeko mapa politikoaren eraketari.



IZAR MENDIGUREN COSGAYA

KAZETARIA

Genero ikuspegia: ahotan lehen, ekinbidetan azken



Nola tokiko instituzioetarako herri programak osatzeko hala zerrendetan joateko, geroz eta gehiago hartzen da aintzat emakumeen presentzia. Alderdi gehienek berdintasuna darabilte ahotan ekiteko moduetan, baina nabarmena da: jendartean oraindik genero aniztasuna bermatzetik urrun gaude. Genero ikuspegiari proiektu sozial eta politikoetan garrantzia gehiago edo gutxiago ematen zaiola nabari da alderdiaren arabera. Horren adierazle dira zerrendetako emakumeen kopuruak, neska hautagaien postuak, edota herri programetan berdintasun politikek zein ikuspegi feministak duten isla.

Alkategaien %30 da emakumea

2015-2019 lege agintaldian Amurrión, Urduñan eta Arrankudiaga-Zollon izan da soilik emakumezkoa gobernu talde buru. Datozen lau urteei begira, Aiaraldeko 9 udalak gobernatzeko 33 alkategai aurkeztu dituzte orotara alderdi ezberdinekin. Zerrendaburu guztietatik 10 baino ez dira emakumezkoak, zerrendaburuen %30.33 hain zuzen. Horrek baieztatzen du, gaur-gaurkoz, tokiko instituzioen botereguneetan gizonen ikuspegi eta erabakiak nabarmentzen direla. Edozelan ere, zinegotzi kopurua eskualdeko datuetara ekarrita -97 hautetsi dira- parekidetasuna da nagusi %48.45 baita emakumezkoa (47 ordezkari). Hautagaien adinak ere beste gogoeta bat dakar argitara: politikagintza zein udalgintzan diharduten neska gehienak gazteak edota nahiko helduak dira. Hau da, salbuespenak salbuespen, 25-40 urte bitarteko neska oso gutxi daude instituzioetan aritzeko prest; batez ere, gizartearen joerak bestelako lan batzuen kargu uzten dituelako, amatasuna kasu.

Edozelan ere, zerrendei erreparatuta, ukaezina da azken urteetan aurrerapausoak eman direla emakumeen parte hartzeari dagokionez. Horrek ez du esan nahi, ordea, instituzioetan -eta ondorioz, jendartean- berdintasuna nagusi denik; sexuak ez baitu bermatzen ikuspegi feminista presente izatea.

Ekitaldietan, gizonezkoen hitzartzeak nagusi

Azken eta datozen egunetan, ekitaldi politiko ugari egongo dira Aiaraldean. Aztertzea da ere, hitzartzeetan zer nolako "pisua" duten gizonezkoek eta emakumezkoek. Oraindik ere feminismoaz eta berdintasunaz hitz egiteko tarte emakumezkoari egozten zaio -euren gain utziz egitekoaren inplikazio eta gidaritza osoa, gainontzeko generoek zer egin edo zer esanik ez balute bezala-, eta bestelako gaietan bigarren maila batean azaleratzen da euren hitzartzea. Are, alderdien nazio mailako adierazpen nagusiak -hots, kanpora begira, herritik harago, garrantzitsutzat hartzen diren horiek- gizonezkoek egiten dituzte gehien bat, goi karguetan beraiek baitira "jaun eta jabe". Horretaz jabetzeko aski da egunkarietako edota telebistetako jarraipenari so egitea. Eta nago, so esateko garaia dela, telebista kateei begira egon baino, herritar guztiak -baita kultura ezberdinetako bizilagunak- barne hartuko dituen giltza egokiak bilatu eta kateak askatzeko.